| | |
|---|---|
| **Lehiaketa-oposizioa, barne sustapenaren bitartez Leioako Udaleko karrerako funtzionarientzat, LPZ-n bete gabe dauden ofizialorde lanpostuko bi dotaziorako** | **Concurso-oposición mediante promoción interna de dos dotaciones del puesto de Suboficial vacantes en la RPT para funcionarios de carrera del Ayuntamiento de Leioa** |
| 2017ko urriaren 26(e)ko Alkatearen 17/2683 Dekretuaren bitartez, Udaleko Lanpostu Zerrendan hutsik zeuden bi lanpostu betetzeko deialdia eta deialdi horretarako oinarriak onartu egin ziren, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/89 Legearen 30. artikuluak eta gainerako lege mailako xedapenek diotenaren arabera argitaratuz | Mediante Decreto de Alcaldía nº 2683/17, de fecha 26 de octubre de 2017, se aprobó la convocatoria para la provisión de dos dotaciones del puesto de Suboficial, vacantes en la RPT del Ayuntamiento, así como las bases que han de regir dicha convocatoria, lo que se hace público en cumplimiento de lo preceptuado en el artículo 30 de la Ley 6/89 de Función Pública Vasca y demás disposiciones legales vigentes. |
| Deialdi hau honako arau hauetan xedatutakoarekin bat gauzatzen da: 4/1992 Legean, uztailaren 17koan, Euskal Herriko Poliziari buruzkoan; 315/1994 Dekretuan, uztailaren 19koan, Euskal Herriko poliziaren hautespen- eta prestakuntza-araudia onartzen duenean; eta azken hori aldatu zuten 111/2002 Dekretuan, maiatzaren 21ekoan, eta 36/2004 Dekretuan, otsailaren 17koan.<br><br>**OINARRIAK**<br><br>***Lehenengoa.–*** Deialdiaren xedea.<br><br>Barne-sustapeneko hautespen-prozedura deitzen da lehiaketa-oposizioko sistemaren bidez; fase hori prestakuntza-ikastaro batekin eta praktikaldi batekin osatuko da. Xedea da 2 plaza betetzea Leioako Udaltzaingoaren Ikuskapen Eskalako Ofizialorde kategorian; Euskal Administrazio Publikoen funtzionarioen sailkapenean, C taldeari eta C1 azpitaldeari dagozkio, postua lortzeko eskatzen den titulazioaren aldetik. Plaza horiek sorrarazi dituzten lanpostuak honela jasota daude indarreko LPZn: 8002/130 kodea (3 (C1) hizkuntza-eskakizuna du esleituta, derrigortasun-datarik gabe), eta 8003/00 kodea (3 (C1) hizkuntza-eskakizuna du esleituta, eta derrigortasun-data iraungita du, 2015/11/11n zehazki); biak ere Ofizialorde gisa zehaztuta daude.<br><br>***Bigarrena.–*** Hautagaien betekizunak.<br><br>1.– Hautespen-prozeduran parte hartzeko, honako betekizun hauek bete beharko dira:<br><br>a) Eskaera aurkeztea.<br><br>b) Leioako Udaltzaingoko karrerako funtzionario izatea, Oinarrizko Eskalan, Agente Lehen kategorian.<br><br>c) Hutsegite larriagatik edo oso larriagatik zehapenik jaso ez izatea, ezarritako zehapena baliogabetu ez bada. | La presente convocatoria se realiza de conformidad con lo dispuesto en la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco y en el Decreto 315/1994, de 19 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Selección y Formación de la Policía del País Vasco, y las modificaciones efectuadas al mismo por el Decreto 111/2002, de 21 de mayo y el Decreto 36/2004, de 17 de febrero.<br><br>**BASES**<br><br>***Primera.–*** Objeto de la convocatoria.<br><br>Se convoca procedimiento selectivo mediante el sistema de concurso-oposición por promoción interna que se complementará como una fase más del mismo con la realización de un curso de formación y un periodo de prácticas, para la provisión de 2 plazas en la Categoría de Suboficial, de la Escala de Inspección de la Policía Local de Leioa, correspondiente con el Grupo C, Subgrupo C1, de clasificación de los funcionarios de las Administraciones Públicas Vascas en función de la titulación exigida para el ingreso. Los puestos de trabajo que traen causa de dichas plazas, son los referidos en la RPT vigente con código 8002/130 (que tiene asignado perfil lingüístico 3 (C1), sin fecha de preceptividad asignada) y el 8003/00 (que tiene asignado perfil lingüístico 3 (C1), con fecha de preceptividad vencida a 11/11/2015), y que se definen como Suboficial.<br><br>***Segunda.–*** Requisitos de los aspirantes.<br><br>1.– Para ser admitido a tomar parte en el procedimiento selectivo, será necesario reunir los siguientes requisitos:<br><br>a) Efectuar solicitud previa.<br><br>b) Tener la condición de funcionario o funcionaria de carrera de la Policía Local de Leioa, de la Escala Básica, con categoría de Agente Primero.<br><br>c) No haber sido sancionado por la comisión de falta grave o muy grave, salvo que se hubiera obtenido la cancelación de la sanción impuesta. |

| | |
|---|---|
| d) Leioako Udaltzaingoko Agente Lehen kategorian zerbitzu aktiboko administrazio-egoeran egotea, eta honako baldintza hauek betetzea: | d) Hallarse en situación administrativa de servicio activo en la Categoría de Agente Primero de la Policía Local de Leioa y reunir las siguientes condiciones: |
| d.1.– Batxiler- edo teknikari-titulua edo baliokidea izatea, C1 azpitaldeari dagokiona. Lehiaketan parte hartu ahal izango dute, baita ere, horrelako titulurik ez duten baina hurrengo maila baxuagoko sailkapen-azpitaldeari (C2 azpitaldea) dagokiona dutenek, betiere, gaikuntza-ikastaro zehatza gainditu badute, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen (uztailaren 17ko 4/1992) 59. artikuluaren 2. zenbakian arautuakoari jarraikiz. | d.1.– Hallarse en posesión del título de Bachiller o Técnico o equivalente, correspondiente al Subgrupo C1. También podrán concurrir quienes careciendo de la citada titulación, posean la propia del subgrupo de clasificación inmediatamente inferior (subgrupo C2) y hayan superado el curso de capacitación determinado, conforme a lo regulado en el número 2 del artículo 59 de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco. |
| d.2.– Leioako Udaltzaingoaren Oinarrizko Eskalan 4 urtez benetako zerbitzuan egon izana. Benetako zerbitzuak zenbatzeko, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen 59.3. artikuluan xedatutakoa hartuko da kontuan: jatorrizko kategorian benetan zerbitzuan emandako denbora zenbatzeko, zerbitzu aktiboan egondako denboraz gainera, kategorian sartu aurretik egindako praktikaldiko denbora ere zenbatuko da, betiere, hautespen-prozesua gainditu bazen; eta gaixotasunagatik edo istripuagatik bajan emandako denbora kenduko da, laneko istripuagatik izan ez bazen, bai eta lizentziak baliatzen edo kategoriari dagozkion berezko eginkizunak ez gauzatzea dakarren beste edozein egoeratan emandako denbora ere. Hautagaiek betekizun hori betetzen duten ala ez jakiteko informazioa Pertsonal Sailean dauden datuetatik aterako da. | d.2.– Haber completado 4 años de servicios efectivos en la Escala Básica de la Policía Local de Leioa. Los servicios efectivos se computarán de acuerdo a lo establecido en el artículo 59.3 de la Ley de Policía del País Vasco, es decir, a los efectos del cómputo del tiempo de servicios efectivos en la categoría de procedencia, al período transcurrido en la situación de servicio activo se incrementará el correspondiente al de prácticas previo al ingreso en la misma, siempre que el proceso selectivo hubiera sido superado, y se deducirán los períodos de permanencia en situación de baja por enfermedad o accidente, salvo que lo sea por causa de accidente laboral, en el disfrute de licencias o en cualquier otra circunstancia que conlleva la no prestación de las funciones inherentes a la categoría. La comprobación del presente requisito se realizará con arreglo a los datos obrantes en el Departamento de Personal. |
| e) Polizia-ibilgailuak gidatzeko behar den gidabaimena izatea, hamabigarren oinarrian aurreikusitako betekizunak egiaztatzeko epea hasi baino lehenagotik. | e) Estar en posesión del permiso de conducir, en la categoría necesaria para la conducción de vehículos policiales, con anterioridad al inicio del plazo de acreditación de los requisitos previsto en la base Duodécima. |
| 2.– Prozeduran parte hartu nahi dutenek aurreko atalean aipatutako betekizun guztiak beteta izan beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako, aurreko atalaren e) idatz-zatian xedatutako salbuespena salbuespen. | 2.– Quienes deseen tomar parte en el procedimiento deberán reunir todos los requisitos establecidos en el apartado anterior a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes, salvo lo dispuesto en la letra e) del apartado anterior. |
| 3.– Pertsona hautespen-prozeduran onartua izan dadin eta prozeduran parte hartu ahal izateko, nahikoa izango da eskabidean adieraztea 1. atalean eskatutako baldintzak betetzen dituela, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den datarako, e) idatz-zatian gidabaimenari buruz berariaz adierazitakoari dagokionez izan ezik. | 3.– Para que la persona pueda ser admitida y tomar parte en el procedimiento selectivo, bastará con que manifieste en su solicitud que reúne las condiciones exigidas en el apartado 1, referidas siempre a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes, con la salvedad de lo específicamente establecido en la letra e), respecto del permiso de conducir. |
| Deialdia egiten duen organoak ofizioz egiaztatutako ditu betekizun horiek, eta, horretarako, Giza Baliabideen Sailaren ziurtapena beharko du. | La comprobación de los citados requisitos se llevará a cabo de oficio por el órgano convocante, para lo que requerirá la oportuna certificación del Departamento de RRHH. |
| 4.– Aurreko atalean adierazitakoaren kaltetan izan gabe, hautespen-prozedurako edozein unetan edo prestakuntza-ikastaroak edo praktikaldiak irauten duten artean, | 4.– No obstante lo dispuesto en el apartado anterior, si en cualquier momento del procedimiento selectivo o durante el curso de formación o el periodo de prácticas, llegase a |

| | |
|---|---|
| onartutako eta baztertutako pertsonen zerrenda onesteko eskumena duen organoak jakingo balu hautagai horietakoren batek ez dituela betetzen deialdian parte hartzeko eskatzen diren betekizunak, hautespen-prozeduratik edo prestakuntza-ikastarotik edo praktikalditik kanporatuko du, hari entzunaldia egin ondoren. | conocimiento del órgano competente para aprobar la relación de personas admitidas y excluidas que alguna de ellas carece de los requisitos exigidos para tomar parte en la convocatoria, la excluirá del procedimiento selectivo, o en su caso del curso de formación o del periodo de prácticas, previa audiencia de la misma. |
| 5.– Hautagaiek beren borondatez erabaki behar dute hautespen-prozedura honetan parte hartzea, eta, hala erabakiz gero, proba psikoteknikoak eta/edo nortasun-probak egitea onartzen dute, eta proba horien emaitzak balorazio-faktore gisa erabiltzeko baimena ematen, oinarri hauetan aurreikusitakoarekin bat. | 5.– La participación en el presente procedimiento selectivo es voluntaria, e implicará la prestación de consentimiento a realizar pruebas psicotécnicas y/o de personalidad, aceptando que el resultado de esas pruebas sea utilizado como un factor más de valoración, de conformidad con lo previsto en las presentes bases. |
| ***Hirugarrena.–*** Eskabideak. | ***Tercera.–*** Solicitudes. |
| 1.– Hautespen-prozeduran parte hartu nahi dutenek horretarako eskabidea aurkeztu beharko dute instantzia-eredu normalizatua erabiliz; Udalaren Erregistro Orokorraren bulegoan eskuratu ahal izango dute eredua. | 1.– Quienes deseen tomar parte en el procedimiento selectivo deberán formalizar solicitud en tal sentido utilizando el modelo normalizado de instancia que estará a disposición en la oficina del Registro General del Ayuntamiento. |
| 2.– Eskabideak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, deialdi hau derrigorrez argitaratu beharreko azken aldizkari ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. | 2.– El plazo para presentar solicitudes será de 20 días hábiles, a contar desde el siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el último diario oficial en que sea preceptiva dicha publicación. |
| 3.– Instantziak Udalaren Erregistro Orokorraren bulegoan aurkeztu beharko dira, edo hari igorri beharko zaizkio Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen (urriaren 1eko 39/2015) 16.4 artikuluan aurreikusitako bitartekoetako baten bidez. | 3.–Las instancias deberán ser presentadas en la oficina del Registro General del Ayuntamiento, o bien ser remitidas a la misma por cualquiera de los medios previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. |
| 4.– Eskabidean adierazi beharko da zer hizkuntzatan egin nahi diren oposizio-probak, euskaraz ala gaztelaniaz. | 4.– En la solicitud, se deberá hacer constar la lengua, euskera o castellano, en que se desee realizar las pruebas de la oposición. |
| 5.– Merezimenduak eskabidean alegatu beharko dira. Edonola ere, merezimenduei buruzko informazioa administrazio jardulearen esku badago lehendik, ez da horiek egiaztatu beharrik izango, hark ofizioz egiaztatutako baititu. | 5.– Los méritos deberán ser alegados en la solicitud. No obstante lo anterior, no será precisa la acreditación de los méritos que ya consten a la Administración actuante, la cual procederá a su comprobación de oficio. |
| ***Laugarrena.–*** Hautagaiak onartzea. | ***Cuarta.–*** Admisión de los aspirantes. |
| 1.– Behin eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, eta bigarren oinarriaren lehenengo ataleko a), b), c) eta d) idatz-zatietan adierazitako betekizunak betetzen dituztela ofizioz egiaztatu ostean, Alkatetzak onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda onetsiko du, eta Udalaren iragarki-taulan argitaratuko. | 1.– Finalizado el plazo de presentación de solicitudes, y tras la comprobación de oficio del cumplimiento de los requisitos establecidos en las letras a), b), c),y d) del apartado primero de la base segunda, la Alcaldía aprobará la relación provisional de personas admitidas y excluidas, que se hará pública en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento. |
| 2.– Baztertutako pertsona bakoitzari dagokionez, behin-behineko zerrendan adieraziko da zergatik baztertu duten, eta 10 egun balioduneko epea emango zaio erreklamazioak aurkezteko eta bere eskabideko akatsak konpontzeko. | 2.– La relación provisional expresará, con referencia a cada una de las personas excluidas, las causas que hubiera motivado su exclusión, concediendo un plazo de 10 días hábiles para formular reclamaciones y subsanar los defectos de que adoleciera la solicitud. |

| | |
|---|---|
| 3.– Onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda behin betiko bihurtuko duen Ebazpenaren bidez onartuko edo baztertuko dira aurkeztutako erreklamazioak; Ebazpena oinarri honen lehenengo atalean aurreikusitako moduan argitaratuko da. | 3.– Las reclamaciones presentadas serán aceptadas o rechazadas en la Resolución por la que se eleve a definitiva la relación provisional de personas admitidas y excluidas, que se hará pública en la forma prevista en el apartado primero de esta base. |
| 4.– Aipatutako zerrenda horietan, eta gerora argitaratuko direnetan, lanbide-zenbakiaren bidez identifikatuko dira pertsonak. | 4.– Las anteriores relaciones, así como las posteriores listas que se publiquen, contendrán la identificación de la persona mediante la indicación del número profesional. |
| ***Bosgarrena.–*** Epaimahai Kalifikatzailea. | ***Quinta.–*** El Tribunal Calificador. |
| 1.– Lehiaketa-oposizioko probak zehazteko, gauzatzeko eta ebaluatzeko, eta parte hartuko duten pertsonak hautatzeko, Epaimahai Kalifikatzaile bat eratuko da, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legean (uztailaren 17ko 4/1992) eta uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuan xedatutakoarekin bat. Epaimahaia presidente batek, hiru kidek eta idazkari batek osatuko dute. Iragarki-taulan argitaratuko da, Alkatetzaren Ebazpen bidez, zer pertsonak osatzen duten Epaimahai Kalifikatzailea, eta nor izango diren ordezkoak. Euskara-maila ebaluatzeko probetan, IVAPek izendatutako beste pertsona bat ere egongo da epaimahaian, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 99.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz. | 1.– Al objeto de la determinación, desarrollo y evaluación de las pruebas del concurso-oposición, y la selección de las personas participantes se constituirá un Tribunal Calificador, conforme a las previsiones de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco y el Decreto 315/1994, de 19 de julio, que estará integrado por un Presidente/a, tres Vocales y un Secretario/a. El nombramiento de las personas que integran el Tribunal Calificador y sus suplentes se hará público en el Tablón de Anuncios, mediante Resolución de la Alcaldía. En las pruebas destinadas a la evaluación de los conocimientos de euskera, formará parte del tribunal además, otra persona designada por el IVAP, según establece el artículo 99.2 de la Ley 6/1989 de Función Pública Vasca. |
| 2.– Epaimahai Kalifikatzailearen jarduketa kide anitzeko organoen funtzionamendu-arauen mende egongo da. Epaimahai Kalifikatzailea osatzen duten pertsonei aplikagarri izango zaizkie Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko legearen (urriaren 1eko 40/2015) 23. eta 24. artikuluetan jasotako abstenitze- eta errekusatze-kausak. Epaimahai Kalifikatzaile horretan parte hartzeak legez aurreikusitako kalte-ordainak jasotzea ekarriko du. | 2.– La actuación del Tribunal Calificador se regirá por las normas reguladoras del funcionamiento de los órganos colegiados. A las personas que integran el Tribunal Calificador les serán de aplicación las causas de abstención y recusación recogidas en los artículos 23 y 24 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de régimen jurídico del sector público. La participación en el presente Tribunal Calificador dará lugar a la percepción de las indemnizaciones legales previstas. |
| 3.– Epaimahai Kalifikatzaileari dagokio hautespen-sistema osatzen duten probak eta merezimenduak gauzatzea eta ebaluatzea. Epaimahaiak eginkizun-autonomia osoz jardungo du, eta bera arduratuko da prozedura objektiboa dela eta deialdiaren oinarriak betetzen direla bermatzeaz. | 3.– El desarrollo y evaluación de las pruebas y méritos que integran el sistema selectivo corresponderá al Tribunal Calificador, que actuará con plena autonomía funcional, será responsable de la objetividad del procedimiento y garantizará el cumplimiento de las bases de la convocatoria. |
| 4.– Epaimahai Kalifikatzaileak bere lanetan langile aholkulariak edo espezialistak sartzea erabaki ahal izango du, hautespen-sistemako proba guztietarako edo batzuetarako; langile horiek aholkuak eta laguntza teknikoa emango dituzte, nork bere espezialitatean. | 4.– El Tribunal Calificador podrá disponer la incorporación a sus trabajos de personal asesor o especialista, para todas o alguna de las pruebas de que consta el sistema selectivo, quienes se limitarán a prestar el asesoramiento y colaboración técnica en el ejercicio de sus especialidades. |
| 5.– Epaimahai Kalifikatzaileak hautespen-sistema behar bezala gauzatzeko behar diren neurriak hartu ahal izango ditu oinarri hauetan jasota ez dauden alderdi guztietarako, eta haiek interpretatzean eta aplikatzean, edo bere eginkizunak gauzatzean, sor litezkeen zalantzei buruzko erabakiak hartu ahal izango ditu. | 5.– El Tribunal Calificador podrá adoptar las medidas necesarias para el desarrollo del sistema selectivo en todo lo no previsto en las presentes bases, y resolver cuantas cuestiones se susciten relativas a su interpretación y aplicación, así como para el propio ejercicio de sus funciones. |
| 6.– Epaimahaiak ezin izango ditu deitutako plazak baino | 6.– El Tribunal no podrá seleccionar un número mayor de |

| | |
|---|---|
| hautagai gehiago hautatu, eta zuzenbide osoz baliogabeak izango dira muga hori gainditzen duten proposamen guztiak. | aspirantes que el de plazas convocadas, siendo nulas de pleno derecho todas las propuestas que infrinjan tal limitación. |
| 7.– Epaimahai Kalifikatzailearen erabakiak iragarki-taulan argitaratuko dira. | 7.– Los Acuerdos del Tribunal Calificador se harán públicos en el Tablón de Anuncios. |
| 8.– Epaimahai Kalifikatzaileari zuzendutako idazkiak Leioako Udalera igorriko dira. | 8.– Los escritos dirigidos al Tribunal Calificador se remitirán al Ayuntamiento de Leioa. |
| ***Seigarrena.–*** Hautespen-prozesua. | ***Sexta.–*** El proceso selectivo. |
| 1.– Hautespen-prozesua lehiaketa-oposizioa izango da; hots, oposizio- eta lehiaketa-prozedura jarraituak gauzatuko dira prozesuan parte hartzen dutenen gaitasuna zehazteko eta haien arteko lehentasun-ordena finkatzeko. | 1.– El proceso selectivo será el de concurso-oposición, que consistirá en la sucesiva celebración de los procedimientos de oposición y concurso para determinar la aptitud de quienes participan en el mismo y el orden de prelación resultante. |
| 2.– Lehiaketa-fasea ez da kanporatzailea izango, eta han lortutako puntuazioa ez da kontuan hartuko oposizioko jarduerak gaindituztat jotzeko edo haietan lortutako kalifikazioak aldatzeko. | 2.– La fase de concurso no tendrá carácter eliminatorio y la puntuación obtenida en el mismo no podrá ser tomada en consideración para entender superados los ejercicios de la oposición o alterar las calificaciones obtenidas en los mismos. |
| ***Zazpigarrena.–*** Oposizioa. | ***Séptima.–*** La oposición. |
| Oposizio-fasean, honako proba hauek egingo dira bata bestearen atzetik: | La fase de oposición consistirá en la sucesiva celebración de las siguientes pruebas: |
| 1.– Lehena: Jakintza teorikoen proba, derrigorrezkoa eta kanporatzailea. Idatziz erantzun beharko zaie Epaimahai Kalifikatzaileak jarritako probari edo probei (test modukoak izan daitezke); proba horiek Ebazpen honen I. Eranskinean jasotako gai-zerrendatik aterako dira. Proba hau kalifikatzeko, gehienezko puntuazioa 50 puntukoa izango da, eta gutxienez 25 puntu lortu beharko dira proba gainditzeko. | 1.– Primera: Prueba de conocimientos teóricos, de carácter obligatorio y eliminatorio. Consistirá en la contestación por escrito a la prueba o pruebas (que podrán ser formuladas tipo test) que determine el Tribunal Calificador, extraídas del temario que figura en el Anexo I de la presente Resolución. La calificación de esta prueba se realizará sobre una puntuación máxima de 50 puntos, siendo necesario, para su superación, obtener un mínimo de 25 puntos. |
| 2.– Bigarrena: Hautagaiak lanpostu hori betetzeko eta Ofizialorde kategoriari dagozkion berezko polizia-eginkizunak gauzatzeko dituen gaitasunak eta jarrerak aztertzeko proba psikoteknikoa. Proba horretan, 0 puntutik 50 puntura bitarteko balorazioa emango da. | 2.– Segunda: Prueba psicotécnica dirigida a determinar las aptitudes y actitudes de las personas para el desempeño del puesto y tareas policiales propias de la categoría de Suboficial. Esta prueba, se valorará de 0 a 50 puntos. |
| Jarraian aipatzen dira proba hori osatuko duten jarduerak. Epaimahaiak erabakiko du zer ordenatan egingo diren jarduerak eta zer iraupen izango duten. Gainera, egun bakarrean zenbait jarduera bata bestearen atzetik egitea erabaki ahal izango du. | Esta prueba constará de los siguientes tipos de ejercicios, cuyo orden de celebración así como su duración serán determinados oportunamente por el Tribunal, pudiendo acordar, así mismo, la realización de unos y otros en un mismo día y de forma consecutiva: |
| A) Gaitasun-probak: ez-kanporatzaileak. Gaitasun intelektualeko testak egingo dira, honako aldagai hauek baloratzeko: adimen orokorra, pertzepzio- eta arreta-ahalmena, hitzezko arrazoiketarako eta arrazoiketa abstrakturako gaitasuna, etab. Proba horien xedea da aztertzea ea hautagaia pertsona egokia den postuaren eginkizun orokorretarako eta lan zehatzetarako. Gehienezko puntuazioa 20 puntukoa izango da. | A) Pruebas de aptitud: de carácter no eliminatorio. Consistirán en la realización de test de aptitudes intelectuales, dirigidos a la valoración de las siguientes variables: inteligencia general, capacidad de percepción y atención, capacidad de razonamiento verbal, razonamiento abstracto, etc...; encaminadas a evaluar la adecuación del candidato a las funciones generales y a las tareas específicas del puesto. Se valorarán sobre un máximo de 20 puntos. |

| | |
|---|---|
| B) Nortasun-probak: kanporatzaileak. Nortasun-test bat edo batzuk egingo zaizkie hautagaiei. Elkarrizketa pertsonal bat eta/edo talde-dinamika bat ere egingo zaie, hautagaia bilatzen den lanbide-profilera egokitzen den ala ez aztertzeko. Jarduera horretan, gehienezko puntuazioa 30 puntukoa izango da, eta gutxienez 15 puntu eskuratu beharko dira jarduera gainditzeko. | B) Pruebas de personalidad: de carácter eliminatorio. Consistirá en la aplicación a los aspirantes de uno o más test de personalidad. Se realizará también una entrevista de carácter personal y/o dinámica de grupo dirigidas al estudio de la adecuación personal del candidato al perfil profesional requerido. Este ejercicio se calificará sobre un máximo de 30 puntos, siendo necesario obtener un mínimo de 15 puntos para su superación. |
| 3.– Hirugarrena: kanporatzailea derrigorrezko profil iraungia duen posturako, eta aukerakoa eta ez-kanporatzailea nahitaezkoa ez den profila duen posturako. Euskara-maila egiaztatu beharko da, 3 hizkuntza-profila edo puntuagarri den hurrengo maila hain zuzen ere. | 3.- Tercera: de carácter eliminatorio para el puesto con perfil preceptivo y vencido, y de carácter voluntario y no eliminatorio para el puesto con perfil no preceptivo. Consistirá en acreditar, en su caso, el conocimiento del euskera al nivel establecido para el perfil lingüístico 3 o el inferior también puntuable. |
| Hizkuntza-profil hori egiaztatuta duten edo haren baliokide den tituluren bat duten pertsonei dagokienez, nahikoa izango da jarduera hori gauzatu baino lehen Udalaren Pertsonal Sailean bertaratzea jatorrizko egiaztagiriarekin, hura erkatu eta hautespen-prozesu honen espedientean sartu ahal izateko. | Para aquellas personas que tuvieran acreditado dicho perfil lingüístico o estuvieran en posesión de alguno de los títulos al mismo equiparados, bastará con que, con anterioridad a la fecha de celebración de este ejercicio se personen en el Departamento de Personal del Ayuntamiento con el documento acreditativo original para su cotejo y traslado al expediente de este proceso selectivo. |
| Derrigortasun-datarik gabeko profila duen posturako, hizkuntza-profilak egiaztatzeak puntuazio jakin bat ematea ekarriko du, Hamargarrena klausulan zehaztutakoarekin bat. | Para el caso del puesto con perfil sin fecha de preceptividad, la acreditación de perfiles lingüísticos determinará la asignación de una puntuación, conforme a lo establecido en la cláusula Decima. |
| ***Zortzigarrena.–*** Oposizio-probak gauzatzea. | ***Octava.–*** Desarrollo de las pruebas de la oposición. |
| 1.– Probak ez dira hasiko deialdia derrigorrean argitaratu beharreko azken aldizkarian argitaratu eta gutxienez bi hilabete pasa arte. | 1.– Las pruebas no podrán iniciarse hasta transcurridos dos meses desde la publicación de la convocatoria en el último diario oficial en que sea preceptiva dicha publicación. |
| 2.– Lehenengo jarduera zer egunetan, ordutan eta tokitan egingo den adierazten duen informazioa Udalaren iragarki-taulan argitaratuko da, gutxienez egutegiko zazpi egun lehenago. Gainerako jardueren iragarkiak iragarki-taulan argitaratuko dira gutxienez hirurogeita hamabi ordu lehenago. | 2.– La fecha, hora y lugar de celebración del primer ejercicio se anunciará en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento de Leioa, con una antelación no inferior a siete días naturales. Los sucesivos anuncios de publicación de los restantes ejercicios, serán publicados con una antelación mínima de setenta y dos horas en el referido Tablón de Anuncios. |
| 3.– Aurreko zenbakian adierazitakoaren kaltetan izan gabe, Epaimahai Kalifikatzaileak erabakiko du probak eta haiek osatzen dituzten jarduerak deialdi honetan finkatutako ordenan edo beste ordena batean egingo diren, eta egun bakarrean proba bat baino gehiago egiteko erabakia ere hartu ahal izango du. Edonola ere, proben eta/edo jardueren emaitzak deialdiko oinarrietan finkatutako ordenan argitaratuko dira. Proba eta/edo jarduera jakin baten emaitzak argitaratzean, aurreko probak gainditu dituzten hautagaienak soilik argitaratuko dira, zazpigarren oinarrian finkatutako ordenan. | 3.– No obstante lo establecido en el número anterior, el Tribunal Calificador podrá disponer la celebración de las pruebas y de los distintos ejercicios que las integren en orden diferente al establecido en esta convocatoria, así como la celebración de varias pruebas el mismo día. En este caso, las publicaciones de resultados de pruebas y/o ejercicios seguirán el orden establecido en las bases de la convocatoria. Solo se publicarán los resultados de cada prueba y/o ejercicio respecto de quienes hayan superado los anteriores siguiendo el orden establecido en la base séptima. |
| Hautagai-kopuruaren arabera, eta probak zerbitzuaren beharrekin bateragarriak izateko moduan, probak txanda eta toki desberdinetan egiteko erabakia hartu ahal izango | Atendido el número de aspirantes, y de forma que se haga compatible la realización de las mismas con las necesidades del servicio, el Tribunal Calificador podrá decidir la |

| | |
|---|---|
| du Epaimahai Kalifikatzaileak. | celebración de las pruebas en diversas tandas y en distintos lugares. |
| 4.– Epaimahaiak derrigorrezko probetarako finkatutako egunean, orduan eta lekuan agertzen ez diren hautagaiak automatikoki kanporatuko dira hautespen-prozeduratik, baita ezinbesteko arrazoiengatik izan bada ere. Arau bera aplikatuko zaie probetara eta/edo jardueretara horiek hasi ostean iristen diren hautagaiei. | 4.– Se producirá la exclusión automática del procedimiento selectivo de quienes no comparezcan al llamamiento del Tribunal para el desarrollo de las pruebas obligatorias en la fecha, hora y lugar que se señale, incluso por razones de fuerza mayor. La misma regla se aplicará a quienes concurran a la realización de cualquiera de las pruebas y/o ejercicios obligatorios una vez iniciada la ejecución de las mismas. |
| Derrigorrezko probaren bat zenbait jarduerak osatzen badute, jarduera horietako edozeinetara ez bertaratzea edo berandu iristea probara ez bertaratzetzat joko da. | Si alguna de las pruebas obligatorias constara de varios ejercicios, se considerará incomparecencia la ausencia o retraso a cualquiera de ellos. |
| 5.– Parte hartzen duen pertsonak egiaztagiria eraman beharko du probetara, eta Epaimahai Kalifikatzaileak hura erakusteko eskatu ahal izango dio edozein unetan. | 5.– Se deberá comparecer a las diferentes pruebas portando documentación acreditativa de la identidad de la persona participante, cuya presentación podrá ser exigida por el Tribunal Calificador en todo momento. |
| 6.– Proba kanporatzaile bat amaitzen den bakoitzean, Epaimahai Kalifikatzailearen Erabaki baten bidez, proba gainditu duten eta kanporatuta geratu diren pertsonen zerrenda argitaratuko da Udalaren iragarki-taulan, bakoitzak lortutako puntuazio zehatza jasoko duena. | 6.– Al finalizar cada prueba de carácter eliminatorio, mediante Acuerdo del Tribunal Calificador, se publicará en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento la lista de personas que lo hubieran superado y de aquellas que hayan quedado excluidas, con indicación expresa de la puntuación obtenida. |
| 7.– Hautagaiek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egin ahal izango dituzte oposizio-probak. | 7.– Las personas podrán realizar los ejercicios de la oposición en cualquiera de los idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca. |
| ***Bederatzigarrena.–*** Lehiaketa. | ***Novena.–*** El concurso. |
| 1.– Lehiaketa-fasean, parte-hartzaileek argudiatutako merezimenduak baloratuko dira, dagokion baremoaren arabera, hautagaien gaitasunak eta lehentasun-ordena zehazteko. Eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehenagotik lortuta zituzten merezimenduak soilik ebaluatuko dira, betiere, instantzian aipatu badituzte eta deialdian ezarritako epean egiaztatu badituzte. Edonola ere, merezimenduei buruzko informazioa administrazio jardulearen esku badago lehendik, ez da horiek egiaztatu beharrik izango, hark ofizioz egiaztatutako baititu. | 1.– La fase de concurso consistirá en la valoración de los méritos aducidos por quienes participen en el mismo, conforme al baremo correspondiente, para determinar la aptitud y el orden de prelación resultante. Únicamente podrán evaluarse aquellos méritos que estuvieren contraídos con anterioridad a la fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes, siempre que hubieren sido aducidos en la instancia y acreditados dentro del plazo establecido en la convocatoria. No obstante lo anterior, no será preciso acreditar aquellos méritos que ya consten en poder de la Administración actuante, la cual procederá a su comprobación de oficio. |
| 2.– Lehiaketa-fasean 0,00 puntutik 45,00 puntura bitarteko puntuazioa emango da. Honako faktore hauek hartuko dira kontuan barematuko diren merezimendu gisa: | 2.– La fase de concurso se valorará de 0,00 a 45,00 puntos. Los factores a meritar y baremar son los siguientes: |
| 2.1.– Lanbide-historiala. | 2.1.– Historial profesional. |
| Lanbide-historialaren baitan, lanpostuak betetzeko ohiko sistemen bidez bete diren lanpostuetan gauzatutako lanak eta polizia-lanean lortutako aintzatespenak baloratuko dira. | Dentro del historial profesional, se valorará el desempeño de tareas en los puestos de trabajo que hayan sido provistos por los sistemas de provisión ordinarios y los reconocimientos obtenidos a la labor policial. |
| Edonola ere, atal honetako gehienezko puntuazioa 25,00 | En todo caso, la puntuación máxima por este apartado no |

| | |
|---|---|
| puntukoa izango da, eta honako faktore hauek baloratuko dira: | podrá superar los 25,00 puntos, valorándose los siguientes factores: |
| A) Lanpostuetan gauzatutako lanak: | A) Desempeño de tareas en los puestos de trabajo: |
| A.1.- 12 puntuko balorazioa emango da gehienez, eta 0,25 puntu emango dira Oinarrizko Eskalan Lehen Agente kategoriako lanpostu bakoitzean lanean egondako hilabete oso bakoitzeko (ez dira kontuan hartuko unitatea baino txikiagoak diren zatiak). Lanpostuak lanpostuen zerrendan jasotako kodearen bidez identifikatuko dira. Ez dira lanpostu desberdintzat joko postu-kode bereko hornikuntza desberdinak. | A.1.- Se valorará hasta un máximo de 12 puntos, y a razón de 0,25 puntos por mes completo (despreciándose las fracciones menores a la unidad), el desempeño de tareas de cada puesto de trabajo con Categoría de Agente Primero de la Escala Básica. Cada puesto de trabajo será identificado por el código de puesto reflejado en la relación de puestos de trabajo. No tendrán la consideración de diferentes puestos de trabajo distintas dotaciones de un mismo código de puesto. |
| A.2.- 15 puntuko balorazioa emango da gehienez, eta 0,25 puntu emango dira Ikuskapen Eskalako Ofizialorde kategoriako lanpostu bakoitzean lanean egondako hilabete oso bakoitzeko (ez dira kontuan hartuko unitatea baino txikiagoak diren zatiak). Lanpostuak lanpostuen zerrendan jasotako kodearen bidez identifikatuko dira. Ez dira lanpostu desberdintzat joko postu-kode bereko hornikuntza desberdinak. | A.2.- Se valorará hasta un máximo de 15 puntos, y a razón de 0,25 puntos por mes completo (despreciándose las fracciones menores a la unidad), el desempeño de tareas de cada puesto de trabajo con Categoría de Suboficial de la Escala de Inspección. Cada puesto de trabajo será identificado por el código de puesto reflejado en la relación de puestos de trabajo. No tendrán la consideración de diferentes puestos de trabajo distintas dotaciones de un mismo código de puesto. |
| B) Polizia-lanean jasotako aintzatespenak. | B) Reconocimientos obtenidos a la labor policial. |
| Atal honetan, honako aintzatespen hauek baloratuko dira, baina inola ere ez dira emango 10,00 puntu baino gehiago: | En este apartado, se valorará la concesión de los siguientes reconocimientos, sin que en ningún caso puedan superarse los 10,00 puntos: |
| – Polizia-lana saritzeko domina, 8,00 puntu.<br>– Polizia-zerbitzua saritzeko diploma, bereizgarri gorria, 6,00 puntu.<br>– Polizia-zerbitzua saritzeko diploma, bereizgarri zuria, 4,00 puntu.<br>– Zorionak ematea, 2,00 puntu. | – Medalla al reconocimiento de la labor policial, 8,00 puntos.<br>– Diploma al servicio policial, distintivo rojo, 6,00 puntos.<br>– Diploma al servicio policial, distintivo blanco, 4,00 puntos.<br>– Felicitación, 2,00 puntos. |
| 2.2.– Egindako espezializazio-ikastaroak: 8,00 puntu emango dira gehienez. | 2.2.– Cursos de especialización realizados: se valorarán con un máximo de 8,00 puntos. |
| Euskal Herriko Polizia Ikastegian edo Leioako Udalean egindako eta gaindituko espezializazio-ikastaroak soilik hartuko dira kontuan, eta 0,06 puntu emango dira egiaztatutako prestakuntza-ordu bakoitzeko. | Sólo se valorarán aquellos cursos de especialización realizados y superados organizados en la Academia de Policía del País Vasco o en el Ayuntamiento de Leioa, y se otorgarán 0,06 puntos por cada hora de formación acreditada. |
| 2.3.– Titulazio akademiko ofizialak. | 2.3.– Titulaciones académicas oficiales. |
| Deitutako lanposturako izango duten erabilgarritasunaren arabera baloratuko dira. 2,50 puntu emango dira Unibertsitate Diploma edo haren baliokidea izateagatik, eta 5,00 puntu Unibertsitate Lizentzia edo baliokidea izateagatik. Ez dira kontuan hartutako maila altuagoko tituluak lortzeko behar diren tituluak edo diplomak. | Se valorarán en relación a su grado de utilidad para desempeñar el puesto convocado. Se valorará con 2,50 puntos la posesión del título de Diplomado Universitario o equivalente y con 5,00 puntos el de Licenciatura Universitaria o equivalente. No serán computados aquellos títulos o diplomas necesarios para obtener otros superiores. |
| Edonola ere, atal honetako gehienezko puntuazioa 5,00 puntukoa izango da. | En todo caso, la puntuación máxima por este apartado no podrá superar los 5,00 puntos. |

| | |
|---|---|
| 2.4.– Polizia-eginkizunarekin lotutako lan zientifikoak edo teknikoak argitaratuta izatea. 0,00 eta 2,00 puntu arteko balorazioa emango da, Epaimahai Kalifikatzaileak zehaztutako irizpideen arabera. | 2.4.– Trabajos publicados de carácter científico o técnico relacionados con la función policial. Se valorará, de acuerdo con los criterios que establezca el Tribunal Calificador, de 0,00 a 2,00 puntos. |
| 2.5.– Antzinatasuna. | 2.5.– La antigüedad. |
| Antzinatasunaren merezimendua Giza Baliabideen Sailak dituen datuen arabera baloratuko da: 1,00 puntu emango da Udaltzaingoko Oinarrizko Eskalako Agente Lehen kategorian lanean egondako urte oso bakoitzeko; eta 0,50 puntu, Udaltzaingoko Oinarrizko Eskalako Agente kategorian lanean egondako urte oso bakoitzeko (bi kasu horietan, ez dira kontuan hartuko unitatea baino txikiagoak diren zatiak). Edonola ere, gehienezko puntuazioa 5,00 puntukoa izango da. | El mérito de antigüedad se valorará de acuerdo con los datos obrantes en el Dpto. de Recursos Humanos, valorándose con 1,00 puntos por cada año completo de antigüedad en la Categoría de Agente Primero de la Escala Básica de la Policía Local y con 0,50 puntos por cada año completo de antigüedad en la Categoría de Agente de la Escala Básica de la Policía Local (despreciándose, en ambos casos, las fracciones menores a la unidad), sin que en ningún caso la puntuación máxima pueda superar los 5,00 puntos. |
| Uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren, Euskal Herriko poliziaren hautespen- eta prestakuntza-araudia onartzen duenaren, 13.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, ez dira merezimendutzat joko deialdian parte hartzeko eskatutako betekizunak eta baldintzak. | De conformidad con lo establecido en el artículo 13.3 del Decreto 315/1994, de 19 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Selección y Formación de la Policía del País Vasco, no podrán ser considerados como méritos aquellos requisitos y condiciones que hubiesen sido exigidos para tomar parte en la convocatoria. |
| ***Hamargarrena.–*** Euskararen ezagutza baloratzea. | ***Décima.–*** Valoración del conocimiento de euskera. |
| 1.– Euskararen ezagutza uztailaren 19ko 315/1994 Dekretuaren, Euskal Herriko poliziaren hautespen- eta prestakuntza-araudia onartzen duenaren, 19. artikuluan xedatutakoarekin bat baloratuko da, jarraian adierazten den baremoaren arabera. Merezimendu gisa baloratuko da, eta gehienezko puntuazioa 16 puntukoa izango da. | 1.– El conocimiento de Euskera se valorará de conformidad con lo establecido en el artículo 19 del Decreto 315/1994, de 19 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Selección y Formación de la Policía del País Vasco, conforme al baremo que se recoge a continuación, será valorado como mérito, sobre un máximo de 16 puntos. |
| 3 hizkuntza-profila.- 16 puntu.<br>2 hizkuntza-profila.- 12 puntu.<br>1 hizkuntza-profila.- 8 puntu. | Perfil Lingüístico 3.- 16 puntos<br>Perfil Lingüístico 2.- 12 puntos<br>Perfil Lingüístico 1.- 8 puntos |
| 2.– Euskara-maila egiaztatzeko, nork bere borondatez egiteko proba bat edo batzuk egingo dira. | 2.– Para la acreditación del conocimiento de Euskera se realizará una prueba o pruebas de carácter voluntario. |
| 3.– Hautagaiak ez badira proba horietara edo haiek osatzen dituzten jardueretara bertaratzen, edo berandu bertaratzen badira, haiei uko egin dietela ulertuko da. | 3.– La ausencia o retraso a la realización de estas pruebas o los distintos ejercicios de que consten, tendrán la consideración de renuncia a las mismas. |
| ***Hamaikagarrena.–*** Lehiaketa-oposizioaren amaierako kalifikazioa. | ***Undécima.–*** Calificación final del concurso-oposición. |
| 1.– Lehiaketa-oposizioaren amaierako kalifikazioa bi faseetan lortutako puntuazioen batura izango da, euskararen ezagutza merezimendu gisa ebaluatzetik lortutako puntuazioa gehituta, eta horrek zehaztuko du hautespen-prozesuko parte-hartzaileen lehentasun-ordena. | 1.– La puntuación final del concurso-oposición será la suma de las obtenidas en sus dos fases, incrementada con la que resulte de la evaluación como mérito del conocimiento del euskera y determinará el orden de prelación de las personas participantes en el proceso selectivo. |
| 2.– Sailkapen-ordenan puntuazio-berdinketarik egonez gero, honako irizpide hauen arabera erabakiko da, ezarritako ordenan: | 2.– Los empates a puntuación en el orden de clasificación se dirimirán conforme con los siguientes criterios en el orden que se establecen: |

| | |
|---|---|
| a) 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa.<br>b) Puntuazio hobea jakintza teorikoen proban (oposizioko lehenengo proba).<br>c) Antzinatasun handiagoa Leioako Udaltzaingoan. | a) la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la igualdad de mujeres y hombres.<br>b) Mejor puntuación en la prueba de conocimientos teóricos (primera prueba de la oposición).<br>c) Mayor antigüedad en la Policía Local de Leioa. |
| 3.– Behin hautespen-sistema osatzen duten proben eta merezimenduen sailkapena burututakoan, bosgarren oinarrian aurreikusitako Epaimahai Kalifikatzaileak onetsi, iragarki-taulan argitaratu eta Alkatetzari igorriko dizkio honako hauek: | 3.– Concluida la clasificación de las pruebas y méritos que integran el sistema selectivo, el Tribunal Calificador previsto en la Base Quinta aprobará, publicará en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y remitirá a la Alcaldía: |
| a) Hautespen-prozedura gainditu dutenen behin betiko zerrenda, puntuazio handienetik txikienera ordenatuta. | a) La relación definitiva de quienes han superado el procedimiento selectivo, por orden de mayor a menor puntuación obtenida. |
| b) Hautatutako pertsonen zerrenda, hautespen-prozedura gainditu duten eta deitutako plazetan sartzen diren pertsonek osatutakoa. | b) La relación de personas seleccionadas, integrada por quienes hubieran superado el procedimiento selectivo y tuvieran cabida en el número de plazas convocadas. |
| ***Hamabigarrena.–*** Betekizunak egiaztatzea eta praktikaldiko funtzionario izendatzea. | ***Duodécima.–*** Acreditación de los requisitos y nombramiento de los funcionarios o funcionarias en prácticas. |
| 1.– Hautatzen diren pertsonek bigarren oinarriaren 1. atalaren e) idatz-zatian finkatutako betekizuna egiaztatzen duten jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak aurkeztu beharko dituzte Giza Baliabideen Sailean, egutegiko hamar eguneko epean, hamaikagarren oinarriaren 3.b) idatz-zatian aipatzen den argitaratzea egiten denetik zenbatzen hasita. | 1.– Las personas que resulten seleccionadas deberán presentar, en el Dpto. de RRHH, dentro de los diez días naturales contados desde la publicación a que se refiere la base undécima 3.b), los documentos originales o copias compulsadas acreditativos del requisito exigido en la letra e) del apartado 1 de la base segunda. |
| 2.– Hautatutako pertsonek behar bezala egiaztatzen badute bigarren oinarriko 4. zenbakian aipatutako araudiaren arabera deialdian parte hartzeko betekizunak betetzen dituztela, Alkatetzak praktikaldiko funtzionario izendatuko ditu iragarki-taulan argitaratuko den Ebazpen baten bidez, eta praktiketakoak izango dira prestakuntza ikastaroa hasten denetik karrerako funtzionario izendatu edo hautaketa-prozesutik baztertu arte. Iragarki-taulan argitaratutako Ebazpen horrek finkatuko ditu inpugnazioak eta errekurtsoak aurkezteko epeak. | 2.– Las personas seleccionadas que hayan acreditado debidamente el cumplimiento de los requisitos exigidos para tomar parte en la convocatoria conforme a la regulación establecida en el número 4 de la base segunda, serán nombradas por la Alcaldía, funcionarios o funcionarias en prácticas mediante Resolución que se publicará en el Tablón de Anuncios, y permanecerán en dicha situación desde el inicio del curso de formación hasta que se produzca su nombramiento como personal funcionario carrera o su exclusión del proceso selectivo. La publicación de tal Resolución en el Tablón de Anuncios, será determinante de los plazos a efectos de posibles impugnaciones o recursos. |
| 3.– Norbaitek ez badu aurreko atalean aipatutako epean eskatutako dokumentazioa aurkezten, edo hura aztertutakoan ikusten bada pertsona jakin batek ez dituela betekizunak betetzen, pertsona hori ezin izango da izendatu, eta jarduketa guztiak eraginik gabe geldituko dira, izendapenak sorrarazitako eskubide guztiak galduko dituelarik. Horrelakoetan, Alkatetzak hartuko du haiek hautespen-prozeduratik kanporatzeko eta ezarritako sailkapen-ordenari jarraikiz ordezteko erabakia; kanporatzearen ondorioz deitutako plazetan sartzen diren hurrengo pertsonak izendatuko dituzte, betiere, betekizunak betetzen dituztela egiaztatu ostean. | 3.– Quienes, dentro del plazo indicado en el apartado anterior, no presentaran la documentación requerida, o del examen de la misma se dedujera que la persona carece de alguno de los requisitos exigidos, no podrá ser nombrada, quedando sin efecto todas las actuaciones, con pérdida de cuantos derechos pudieran asistirle para su nombramiento. En tales casos, la Alcaldía decidirá su exclusión del procedimiento selectivo y su sustitución, siguiendo el orden de prelación del orden de clasificación establecido, por aquellas personas que, como consecuencia de la referida exclusión, y previa acreditación del cumplimiento de los requisitos exigidos, tuvieran cabida en el número de plazas convocadas. |

| | |
|---|---|
| ***Hamahirugarrena.–*** Prestakuntza-ikastaroa. | ***Decimotercera.–*** Curso de formación. |
| 1.– Prestakuntza-ikastaroan parte hartzeko eskubidea duten praktikaldiko funtzionarioak txandatan banatu ahal izango dira hura gauzatzeko. Euskal Herriko Polizia Ikastegiaren Zuzendaritzak egingo du txanda-banaketa, eta 11.3.a) oinarrian finkatutako lehentasun-ordena jarraituko du zorrozki. | 1.– Los funcionarios o funcionarias en prácticas con derecho a incorporación al Curso de Formación podrán ser distribuidos en diversas tandas para el desarrollo del mismo. La adscripción a las distintas tandas se efectuará por la Dirección de la Academia de Policía del País Vasco y en la misma se seguirá estrictamente el orden de prelación establecido en la base 11.3.a). |
| 2.– Alkatetza arduratuko da, Giza Baliabideen Sailaren bidez, pertsona interesdunei ikastaroan parte hartzeko jakinarazpena helarazteaz. | 2.– La comunicación a las personas interesadas para su incorporación al Curso se tramitará por la Alcaldía, a través del Dpto. de RRHH. |
| 3.– Prestakuntza-ikastaroa haren ikasketa-planari jarraikiz gauzatuko da. | 3.– El Curso de Formación se desarrollará de conformidad con el Plan de Estudios del mismo. |
| 4.– Prestakuntza-ikastaroa Euskal Herriko Polizia Ikastegian gauzatuko da, edo Ikastegiko Zuzendaritzak aukeratutako zentroan, eta ikasketa-planean aurreikusi bezala emango da, han adierazten den iraupenez. | 4.– El Curso de Formación se desarrollará en la Academia de Policía del País Vasco o en el centro que se designe por la Dirección de la Academia, y se impartirá de conformidad con lo previsto en el Plan de Estudios, con la duración que en el mismo se establece. |
| 5.– Ebaluazioan ikasketa-planean jasotako helburuen lorpen-mailari egingo zaio erreferentzia, bai eta sartzea espero den kategoriaren berezko eginkizunetarako erakutsitako egokitasunari ere, hautespen-sisteman gauzatutako polizia-lanbiderako egokitasun pertsonalari buruzko ebaluazioaren bidez. | 5.– La evaluación se referirá al grado de consecución de los objetivos señalados en el plan de estudios y a la idoneidad mostrada para el desempeño de las funciones propias de la categoría a la que se aspira, mediante la evaluación de la aptitud personal para el desempeño de la profesión policial realizada en el sistema selectivo. |
| 6.– Prestakuntza-ikastaroko amaierako kalifikazioa Udalaren iragarki-taulan argitaratuko da. | 6.– La calificación final del Curso de Formación se hará pública en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento. |
| 7.– Alkatetzak kanporatu egingo ditu prestakuntza-ikastaroa gainditzen ez duten hautagaiak. | 7.– La Alcaldía declarará la exclusión de quienes no superen el curso de formación. |
| 8.– Prestakuntza-ikastaroa gauzatzen ari diren artean, ikasleen espedienteak erakusten badu ez direla hura gainditzeko gai izango, prozesutik kanporatu ahal izango dituzte Alkatetzaren Ebazpen bidez, aurrez interesdunari entzunaldia eginda. | 8.– Si en cualquier momento del desarrollo del curso de formación, del expediente del alumno se desprendiera la imposibilidad de superarlo, podrá ser excluido del proceso mediante Resolución de la Alcaldía, previa audiencia al interesado. |
| ***Hamalaugarrena.–*** Praktikaldia. | ***Decimocuarta.–*** Periodo de prácticas. |
| 1.– Praktikaldia prestakuntza-ikastaroa gainditu dutenek egingo dute. | 1.– El periodo de prácticas se realizará por aquellas personas que hayan superado el Curso de Formación. |
| 2.– Praktikaldia hasi baino lehen, Alkatetzak Ebazpen bat emango du praktikaldiaren iraupena, sistemak eta balorazio- eta gainditze-prozedurak zehazteko eta bakoitzak praktikaldia non egingo duen zehazteko. Ebazpen hori Udalaren iragarki-taulan argitaratuko da. | 2.– Con anterioridad al inicio del periodo de prácticas, la Alcaldía dictará Resolución por la que se establezcan la duración, los sistemas y procedimientos de valoración y superación del periodo de prácticas y se asignen los destinos en prácticas. Dicha Resolución se publicará en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento. |
| 3.– Praktikaldia egiten den bitartean, Ofizialorde kategoriako berezko zereginak gauzatzearekin lotutako lanbide-eraginkortasuna ebaluatuko da. Ebaluazioa praktikaldiak irauten duen artean jazotako gertakariei | 3.– Durante el periodo de prácticas, se evaluará la eficacia profesional vinculada con la ejecución de tareas propias de la categoría de Suboficial. La evaluación recaerá únicamente sobre los hechos que acontezcan durante el |

| | |
|---|---|
| buruzkoa soilik izango da. | tiempo establecido de duración del periodo de prácticas. |
| 4.– Praktikaldiko amaierako kalifikazioak Udalaren iragarkitaulan argitaratuko dira. | 4.– Las calificaciones del periodo de prácticas se harán públicas en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento. |
| 5.– Alkatetzak kanporatu egingo ditu praktikaldia gainditzen ez duten hautagaiak. | 5.– La Alcaldía, declarará la exclusión del procedimiento selectivo, de aquellas personas que no superen el periodo de prácticas. |
| ***Hamabosgarrena.–*** Praktikaldiko ofizialordeen araubide juridikoa. | ***Decimoquinta.–*** Régimen jurídico de los Suboficiales en prácticas. |
| 1.– Ofizialordeak Euskal Herriko Polizia Ikastegiaren Barne Arautegian ezarritako diziplina-araubidearen mende egongo dira, eta, osagarri gisa, gertakaria diziplinazko irakaskuntza-akats hutsa ez denean, Euskal Herriko Polizia Kidegoen diziplina-araubidearen mende. | 1.– Los Suboficiales estarán sometidos a las normativa sobre régimen disciplinario establecida en el Reglamento de Régimen Interior de la Academia de Policía del País Vasco y, con carácter supletorio para aquellos supuestos en que el hecho no constituya simple falta disciplinaria docente, a las normas de régimen disciplinario de los Cuerpos de Policía del País Vasco. |
| Euskal Herriko Polizia Ikastegian gauzatuko den prestakuntza-ikastaroak iraun artean, Barnetegiko Buruak zaindu beharko du ikastaroa hasi duten pertsonek aurreikusitako barnetegi-arauak betetzen dituztela. | Durante el Curso de Formación que se celebre en la Academia de Policía del País Vasco, el Jefe de Internado velará por la aplicación y cumplimiento, por parte de las personas que hayan iniciado el curso, de las normas de régimen de internado previstas. |
| 2.– Praktikaldiko funtzionario izango direnez, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen (uztailaren 17ko 4/1992) 54.2 artikuluan aurreikusitako ordainsariak esleituko zaizkie. | 2.– Como funcionarios o funcionarias en prácticas se les aplicarán las retribuciones previstas en el artículo 54.2 de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco. |
| 3.– Praktikaldian dauden ofizialordeei lizentzia emango zaie Agente Lehen kategorian betetzen zuten lanpostuan. Lizentzia hori ordaindua izango da, 4/1992 Legearen 54.2 artikuluan aurreikusitako ordainsariak jasotzea erabakitzen ez badute. | 3.– A los Suboficiales en prácticas se les concederá una licencia respecto del puesto de trabajo que vinieran desempeñando en la categoría de Agente Primero. La referida licencia será retribuida salvo que opten por el percibo de las retribuciones previstas en el artículo 54.2 de la Ley 4/1992. |
| 4.– Praktikaldiko ofizialordeak egoera horretan egongo dira karrerako funtzionario izendatzen dituzten arte edo, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen (uztailaren 17ko 4/1992) 54. artikuluan xedatutakoarekin bat, hautespen-prozesutik kanporatzen dituzten arte. | 4.– Los Suboficiales en prácticas se mantendrán en tal condición en tanto se produzca su nombramiento como funcionarios de carrera o su exclusión del proceso selectivo, conforme determina el artículo 54, de la Ley de Policía del País Vasco. |
| Praktikaldia amaitzeak ez du esan nahi jatorrizko kategorian betetzen zuten lanpostura itzuliko direnik. | La finalización del período de prácticas no implicará el regreso al destino anteriormente ocupado en la categoría de procedencia. |
| 5.– Prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia derrigorrezkoak izango dira, eta kanporatzaileak izango dira bakoitza bere aldetik. Horiek ez egiteak edo ez gainditzeak pertsona automatikoki hautespen-prozesutik kanporatzea ekarriko du, eta Ofizialorde kategorian sartzeko eskubide guztiak galduko ditu. Alkatetzak emango du kanporatze-adierazpena. | 5.– El Curso de Formación y el periodo de prácticas tendrán carácter obligatorio y eliminatorio individualmente considerados y la no incorporación o su no superación determinará la automática exclusión de la persona del proceso selectivo y la pérdida de cuantos derechos pudieran asistirle para su ingreso en la categoría de Suboficial. La declaración de la exclusión se efectuará por la Alcaldía. |
| Aurreko paragrafoan adierazitakoaren kaltetan izan gabe, ezinbesteko arrazoien ondorioz, hautagai batek ezin badu | No obstante lo dispuesto en el párrafo anterior, aquellas personas que, concurriendo causa de fuerza mayor, no se |

| | |
|---|---|
| ikastaroan edo praktikaldian parte hartu, edo ezin baditu burutu, egiten diren hurrengoetan parte hartu ahal izango du behin parte-hartzea eragozten zuten egoerak desagertutakoan, aurrez horretarako eskaera egiten badu. | incorporen al curso o periodo de prácticas o no lleguen a completar los mismos, podrán hacerlo en los siguientes que se celebren una vez desaparecidas las circunstancias impeditivas, previa solicitud de la misma. |
| Alkatetzak aztertuko ditu arrazoi horiek, eta dagokion ebazpena emango du. | La apreciación de la causa corresponderá a la Alcaldía, a la que competerá adoptar la resolución que proceda. |
| ***Hamaseigarrena.–*** Hautespen-prozedurako behin betiko sailkapena eta karrerako funtzionarioak izendatzea. | ***Decimosexta.–*** Clasificación definitiva del Procedimiento de Selección y nombramiento de los funcionarios o funcionarias de carrera. |
| 1.– Hautespen-prozedurako behin betiko sailkapen-ordena finkatzeko, lehiaketa-oposizioan, prestakuntza-ikastaroan eta praktikaldian jasotako kalifikazioak batuko dira. | 1.– El orden de clasificación definitiva del procedimiento de selección se realizará sumando las calificaciones obtenidas en el concurso-oposición, las del Curso de Formación y periodo de prácticas. |
| 2.– Praktikaldiko azken txanda amaitu eta hurrengo bi hilabeteetan, Euskal Herriko Polizia Ikastegiaren Zuzendaritzaren proposamenari jarraikiz, Alkatetzak karrerako funtzionario izendatuko ditu hautespen-prozedura gainditu duten pertsonak; izendapena iragarki-taulan eta dagozkien aldizkari ofizialetan argitaratuko da. Iragarki-taulan argitaratutako Ebazpen horrek finkatuko ditu inpugnazioak eta errekurtsoak aurkezteko epeak. | 2.– Dentro de los dos meses siguientes al de la finalización de la última tanda del periodo de prácticas, y a propuesta de la Dirección de la Academia de Policía del País Vasco, la Alcaldía procederá a efectuar el nombramiento como funcionario o funcionaria de carrera de las personas que hubieran superado el procedimiento de selección; el nombramiento se publicará en el Tablón de Anuncios y en los Boletines Oficiales correspondientes. La publicación de tal Resolución será determinante de los plazos a efectos de posibles impugnaciones o recursos. |
| Udaltzaingoko Ikuskapen Eskalako Ofizialorde izendatuko dituzte pertsona horiek. | El nombramiento se efectuará como Suboficial de la Escala de Inspección de la Policía Local. |
| 3.– Izendatutako pertsonak postuaz jabetu beharko dira gehienez ere 10 eguneko epean izendapena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Ez badute horrela egiten, eta ezinbesteko arrazoirik ez badago, ondoriorik gabe geratuko dira jarduketa guztiak, eta karrerako funtzionario bihurtzeko eskubide guztiak galduko dituzte. | 3.– Las personas nombradas deberán tomar posesión en el plazo máximo de 10 días a partir del siguiente al de la publicación del nombramiento. Si no lo hicieran así, salvo que concurra causa de fuerza mayor, quedarán sin efecto todas sus actuaciones con la pérdida de cuantos derechos pudieran asistirles para su acceso a la condición de funcionario o funcionaria de carrera. |
| ***Hamazazpigarrena.–*** Akats larriengatik edo oso larriengatik zehapenak ezartzea. | ***Decimoséptima.–*** Imposición de sanciones por faltas graves o muy graves. |
| Ofizialorde kategorian sartzeko hautagai diren pertsonei diziplina-espedientea ireki bazaie edo gerora irekitzen bazaie, hautespen-prozesuan sartzeko, prozesuan jarraitzeko edo Ofizialorde kategorian sartzeko, ezinbestekoa izango da aipatutako diziplina-espediente horietan akats larriengatik edo oso larriengatik zehapenik ez jarri izana. | Cuando las personas aspirantes a ingreso a la categoría de Suboficial tengan incoado o se les incoe con posterioridad expediente disciplinario, la admisión al proceso selectivo, la permanencia en el mismo y el ingreso en la categoría de Suboficiales quedarán condicionadas al hecho de que, en los indicados expedientes disciplinarios, no se produzca la imposición a las mismas de sanciones por faltas graves o muy graves. |
| ***Hemezortzigarrena.–*** Hautespen-prozeduran pertsonak identifikatzea. | ***Decimoctava.–*** Identificación de las personas en el procedimiento selectivo. |
| Hautespen-prozedura honetan parte hartzen duten pertsonak eskabidean erabilitako identifikazio profesionaleko zenbakiaren bidez identifikatuko dira prozedurak irauten duen artean (hautespen-prozesua, | Aquellas personas que tomen parte en el presente procedimiento selectivo, a lo largo del mismo (proceso selectivo, curso de formación y periodo de prácticas) serán identificadas mediante número de identificación |

| | |
|---|---|
| prestakuntza-ikastaroa eta praktikaldia). Era berean, identifikazio profesionaleko zenbaki hori bera erabiliko da Ikuskapen Eskalako Ofizialorde izendatzeko. | profesional empleado en la solicitud. Igualmente ese mismo número de identificaron profesional será el empleado en el nombramiento como Suboficial de la Escala de Inspección. |
| ***Hemeretzigarrena.*–** Kalte-ordainak. | ***Decimonovena.*–** Indemnizaciones. |
| Barneko hautespen-prozesuetara aurkezteko erabakia nork bere borondatez hartzen duenez, hautespen-faseak, prestakuntza-ikastaroak edo praktikaldiak iraun artean sortzen diren bidaia-gastuek edo bestelakoek ez dute horiek jasotzeko inolako eskubiderik sorraraziko, eta, beraz, Administrazioa ez da haiek ordaintzera behartuta egongo. | Debido al carácter voluntario que ostenta la presentación por parte de las personas a cualquier proceso selectivo interno, los gastos por viajes u otros que se puedan producir durante la Fase de Selección, Curso de Formación o periodo de prácticas, no devengará derecho alguno a las mismas y, por lo tanto, la Administración no estará obligada al pago de dichos gastos. |
| **I. ERANSKINA**<br>**GAI-ZERRENDA** | **ANEXO I**<br>**TEMARIO** |
| 1.– Trafiko-istripuak ikertzea: | 1.- Investigación de accidentes de tráfico: |
| 1.1. Trafiko-istripu motak:<br>- Kokapenaren arabera.<br>- Emaitzen arabera.<br>- Tartean dauden ibilgailuen kopuruaren arabera.<br>- Gertatu diren moduaren arabera. | 1.1.Clases de accidentes de tráfico:<br>- Por su situación.<br>- Por sus resultados.<br>- Por el nº de vehículos implicados.<br>- Por el modo en que se producen. |
| 1.2. Gidariei galdeketa egitea:<br>- Komunikazioa.<br>- Galdeketa ikerketaren zati gisa.<br>- Informazioa lortzearen printzipioa.<br>- Gidariak informazio-iturri gisa.<br>- Gaizkileei galdeketak egiteari buruzko oinarrizko ezagutza.<br>- Lekukoengandik informazioa lortzea.<br>- Bidaiariengandik txostenak lortzea.<br>- | 1.2.Interrogatorio de conductores:<br>- La comunicación.<br>- El interrogatorio como parte de la investigación.<br>- El principio de la obtención de información.<br>- Los conductores como fuentes de información.<br>- Nociones sobre interrogatorios a delincuentes.<br>- Obtención de información de los testigos.<br>- Obtención de informes de los pasajeros. |
| 1.3. Atestatua:<br>- Planteamendua.<br>- Alkoholemia.<br>- Beste jarduera tekniko batzuk.<br>- Zantzu-frogak edo zeharkakoak. | 1.3. El atestado:<br>- Planteamiento.<br>- La alcoholemia.<br>- Otras actuaciones técnicas.<br>- Las pruebas indiciarias o indirectas. |
| 2.– Atxiloketa. | 2.- La detención. |
| 2.1. Atxiloketa eta eskubideak gauzatzea: Atxilotzeko legezko supostuak. Poliziaren jarduera atxilotzea ez dagokion egoeretan. Iraupena. Komunikazioa. Atxilotze-supostu bereziak. Hutsegiteengatik atxilotzea. Atxilotzea benetan gauzatzea. Miaketa eta araketa pertsonala. Eskubideak gauzatzea. Inkomunikazioa. Habeas Corpus. | La detención y el ejercicio de derechos: Supuestos legales de detención. Actuación de la policía en casos en que no procede la detención. Duración. Comunicación. Supuestos especiales de detención. Detención por faltas. Práctica material de la detención. Cacheo y registro corporal. Ejercicio de derechos. Incomunicación. Habeas Corpus. |
| 3.– Identifikatzea: Gorputz-miaketak eta informazioa lortzeko beste modu batzuk: | 3.- La identificación: Registros corporales y otros modos de información: |

| | |
|---|---|
| - Planteamendua: Legezko betebeharra.<br>- Identifikatzea ukatzea.<br>- Gorputz-miaketak.<br>- Taldeko ezagutze-saioak.<br>- Informazioa lortzeko beste bitarteko batzuk.<br>- | - Planteamiento: Deber legal.<br>- La negativa a identificarse.<br>- Registros corporales.<br>- Reconocimiento en rueda.<br>- Otros medios de información.<br>- |
| 4.– Suzko armak erabiltzea: | 4.-Utilización de armas de fuego: |
| - Printzipio gidariak.<br>- Defentsa- eta behar-eskubideen subsidiariotasuna.<br>- Jarrera hartzea.<br>- Suposizioak zehaztea: Dolozko heriotza galaraztea. Hiltzeko tiro egitea. Agenteen kontrako erasoa. | - Principios rectores.<br>- La subsidiariedad de los derechos de defensa y necesidad.<br>- Toma de posición.<br>- Delimitación de supuestos: Interdicción de la muerte dolosa. La orden legítima de tirar a matar. La agresión contra los agentes.<br>- |
| 5.– Etxeetan sartzea eta miaketak egitea: | 5.- Entrada y registro domiciliarios: |
| - Etxe partikularrean sartzea eta miaketa egitea.<br>- Poliziak berezko agintez egindako sartzeak eta erregistroak.<br>- Etxe partikularrean sartzea eta miaketa egitea. Etxe kontzeptua eta sartzeko betekizunak. Delitu gori-goria. Titularra bertan ez dagoenean.<br>- Partikular baten etxebizitza ez diren toki itxietan sartzea eta miaketa egitea. Toki berezietan sartzea eta miaketa egitea.<br>- Sartzeko prozedura.<br>- Miaketa.<br>- Pertsona juridikoen etxeetan sartzea eta miaketa egitea. Ibilgailua miatzea.<br>- Toki itxian sartzeko eta miaketa egiteko diligentzian sor daitezkeen gaiak eta haiek froga-balioan izan dezaketen eragina.<br>- Dokumentuak idaztea: Sartzeko eta miaketa egiteko agindua eskatzea. Sartzearen eta miaketaren akta. Epaitegia informatzeko diligentzia. Miaketan konfiskatutako gauzak jasota uzteko diligentzia. | - Entrada y registro en domicilio particular.<br>- Entradas y registros efectuados por la policía de propia autoridad<br>- Entrada y registro en domicilio particular. Concepto de domicilio y requisitos para la entrada. Delito Flagrante. Ausencia del titular<br>- Entrada y registro en lugares cerrados que no constituyen domicilio de un particular. Entrada y registro en lugares especiales<br>- Procedimiento de entrada.<br>- El registro.<br>- Entrada y registro en el domicilio de las personas jurídicas. Registro de vehículo<br>- Cuestiones que pueden plantearse en la práctica de la diligencia de entrada y registro en lugar cerrado y su posible incidencia de cara a su valor probatorio.<br>- Redacción de documentos: Solicitud de mandamiento de entrada y registro. Acta de entrada y registro. Diligencia de información al Juzgado. Diligencia para hacer constar los efectos incautados en el registro. |
| 6.– Landa-kriminalistika: Gertakarien lekua: | 6.- Criminalística de campo: El lugar de los hechos: |
| - Ikerketa behar bezala gauzatzeko oinarrizko printzipioak.<br>- Gertakarien lekua babesteko eta zaintzeko arauak.<br>- Gertakarien lekuan ikerketa gauzatzeko metodologia orokorra: Lekua babestea. Lekuari erreparatzea. Lekua finkatzea. Aztarnak biltzea. Aztarnak laborategira helaraztea. | - Principios fundamentales para el buen desarrollo de la investigación.<br>- Reglas para proteger y preservar el lugar de los hechos.<br>- Metodología general de investigación en el lugar de los hechos: Protección del lugar. Observación del lugar. Fijación del lugar. Colección de indicios. Suministro de indicios al laboratorio.<br>- |
| 7.– Begizko ikuskapena. | 7.- Inspección ocular: |
| - Begizko ikuskapenaren alderdi legalak: Kontzeptua. Praktika. Formalitateak. Delituaren | - Aspectos legales de la inspección ocular: Concepto. Práctica. Formalidades. Cuerpo del |

| | |
|---|---|
| gorputza: kontzeptua. Harez arduratzea. Zaintzea eta biltegiratzea. Begizko ikuskapenaren froga-balioa.<br>- Begizko ikuskapen tekniko-poliziala: Definizioa. Helburuak. Betekizunak. Aztarnak. Metodologia. Biktimaren kanpo-azterketa. Susmagarriaren kanpo-azterketa.<br>- Dokumentuak. Begizko ikuskapenaren akta. Okupazio-/Konfiskatze-/Kontrolatze-/Atzemate-akta. Materiala igortzea. | delito: concepto. La ocupación del mismo. Conservación y depósito. Valor probatorio de la inspección ocular.<br>- Inspección ocular técnico policial: Definición. Finalidades. Requisitos. Indicios. Metodología. Examen externo de la víctima. Examen externo del sospechoso.<br>- Documentos. Acta de Inspección Ocular. Acta de Ocupación/Incautación/Intervención/Aprehensión. Remisión de material. |
| 8.– Babes zibila:<br>- Basoko suteak.<br>- Eraikuntza aurrituak eta hur-hurreko aurri-egoeran daudenak.<br>- Leioa udalerriko larrialdi-plana. | 8.- Protección civil:<br>- Incendios forestales.<br>- Edificios ruinosos y en ruina inminente.<br>- Plan de emergencias del municipio de Leioa. |
| En Leioa, a 27 de octubre de 2017.- La Alcaldesa, Mª Carmen Urbieta. | Leioan, 2017ko urriaren 27(e)an.- Alkatea, Mª Carmen Urbieta. |